

“JAINKO” BILA

Felix IBARGUTXI

Zergatik esaten zitzaien batzuri “Jainkoa”. Etumeta, Andoain, Legorreta, Ustaritze, Leitza, Zarautz eta Oñatiko kasuak

“No pronunciarás el nombre de Dios en vano”, erakutsi zidaten txikitan. Eta doctrina euskaraz ikasteko suerte ona izan zutenei “Jainkoaren izena alferrik ahotan ez hartu” edo holako zerbait. Hala-ko batean, ondo ez dakit nola, baina Granada Errekan erreportaje bat eginen ari nintzela, Etumetako ‘Jainkoa’ esaten zioten gizon bat bazela entzun nuen. Ez nion kaso haundirik egin.

Pasa ziren egun batzu eta hara non ikusten dudan Rufino Iraolak bidalitako artikulu batean -“Artxanberriri” buruzkoa- Legorretan bazela beste gizon bat, hura ere ‘Jainkoa’ gaitzizena zeukana.

Nere artean: “Zergatik jarri ote zieten ezizen hori? Holako herri fededun honetan nolatan horren gaitzizen ironikoa? Polita litzateke jakitea”. Halaxe, neure jakinmina ase nahian hasi nintzen peskizan. Ustez, nik bezala, beste jende askok izango zuela jakinmina.

Ia-ia badira bi hilabete esandakoa gertatu zela. Hurrengo egun batean, telefono-deia Euskadi Irratitik. Iñaki Elortza ‘Txapas’ da, eta nahi du bidal diezaidala Granada Errekako erreportaje

azaldutako argazki baten kopia. Iñaki bezalako gizon ongi informatua parean fortunatu zaidalarik, aprobetxatu egingen dut:

- Iñaki, aizak, hik ezagutu al huen Etumetako ‘Jainkoa’?

- Aditzea badiat, baina ezagutu ez nian egin. Zer ba?

- Hementxe, gizona, pentsatu diat ezizena ‘Jainkoa’ dutenen gainean artikuluren bat egitea.

- Ba hor Zarautz aldean bazegok bat. Hori nire arrebak jakingo dik hobeto. Egon hor eta laster emango diat haren telefonoa.

Handik piska batera, hortxe dut mahai gainean arrebaren telefonoa. Eskuar-tean beste artikulu bat darabildanez, hurrengo astean deitzea erabakitzen dut. Baina ezereen aurretik konfirmatu egin behar dut Legorretako beste harena. Rufino Iraolari deitzen diot Zaldibiarra. Baietz, Legorretako ‘Jainko’ hori tabernaria zela, berak ezagutu zuela, baina datu gehiago bere anaia Patxik emango didala.

Legorretako Jesus Eskisabel

Handik bost-sei egunetara Zaldibian naiz. Bi iraolatarrok kontu asko esango didate Legorretako 'Jainkoari' buruz.

1974ean hil zen Jesus Eskisabel 'Jainkoa'. Legorretako "Bar Olaso"ko nagusia zen. Taberna horri 'Jainkoenea' esaten dio orain ere jende askok.

Mutikoa zela, gurasoak hil zitzaizkion. Ordiziako Agerre-Txikin izeba bat bazuen eta orain ere ondo gogoan du Patxi Iraolak ze pozik jartzen zen Jesus, izekoari enkarguak egin eta diru piska bat egiten zuenean, kajetilla bat zigarro erostea izaten zuelako.

Jesusen osaba bati esaten zioten 'Jainkoa'. Eta gero berari erantsi gaitzizena. Hola izendatzea ez omen ziztaion asko gustatzen, baina bazekien erremediorik ez zuena. Behin 'Mandoa' esaten zioten bat sartu zen bere tabernan:

- Etera basoerdi bat, 'Jainko'.

Eta Jesusek:

- Gaur 'Jainko' eta 'Mando', danak ondo.

Errimazale ez ezik, bertsolari ere izan zen Legorretako 'Jainkoa'. 1960eko hamarkadan Beasainen egiten zen txapelketan behin baino gehiagotan hartu zuen parte. Hala eta guztiz ere, ditxolari moduan fama gehiago bildu zuen bertsolari lanean baino. Edozein

modutan ere, Patxi Iraola ondo gogoratzen da nola behin Zaldibiako Telletxera joan zen eta han Uztafiderekin batera zein saio ona egin zuen. Lazkao Txikirekin erromeria frankotan ibili zen kantari.

Gudaritan ibili zen gerran, hantxe eza-gutu zuen Basarri eta gero makina bat aldiz -urtero-urtero- eraman zuen bertsolari hori bere tabernara.

Behin, Basarri eta Uztafide bazihoazen Goierriko herriren batera, Basarriren 4-4 hartan, eta Legorretara heltzean komentatzen dute: "Jainkoari" egingo al diogu bisita?". Halaxe, sartu dira tabernan eta hantxe topatu 'Jainkoa', mostradorea jasotzen. Pozik jarriko zen gizona adiskideak ikustean. Honako hau esan omen zien: "Jarri zaitetze hor, esnea egosten jarri det eta begiratu behar diot eta. Dana dala ez dauka asko zaitu beharrik. Oraintxe badaukagu konfiantzazko esnea. Horko baserri hortatik ekartzen du eta sekula ez du gainez egiten". Baserrian ura botatzen ziotela, alegia.

"Tabernan zintzotutako gizonik ikusi dezue inoiz?", esaten zien askotan adiskideei. Zumarragako Orbegozo fabrikari egin zuen lan denbora askoan, eta bi hilabeteko huelga gogorra egin zen batean, halaxe jardun zuen trenean, estuasunak estuasun berriketa eta bromatarako gogorik sekula ez zuela

galtzen demostratuz: "Ni, berriz, huelgaren kontra nago; guk zer eskatu genuen ba? Lana! Eta lanaz aparte dirua ere ez al digute ba eman?"

Beste behin, San Inazio egunean, bazkaria egin zuten bertsolari eta bertsozale batzuk. Jesus berandu ailegatu zen, txerriaren azpiak ateratzen ibili zelako. Aita Lasa Arantzazuko frantziskotarra ere hantxe zen eta esan omen zion:

- Hara, 'Jainkoa' jai-egunean txerri-azpiak ateratzen...

Jesusek, berriz:

- Ez al dezue esaten, horratik, Jainkoa toki guztietan egoten dala?

"Hura hil ezkeru triste geratu zen Legorreta", esan digu Patxi Iraolak.

Maitea zuten Jesus Eskisabel Legorretan. Halako jainko txiki bat zen herri hartan. Sekula ez zen aberastu, baina parametro gizatiarragoetatik begiratu-ta, gizon inportantea izatera iritsi zen.

Etxe hartatik irtendakoan, Patxi Iraolak gomendio zorrotza egin zidan:

- Nik izango dut etxean Jesus zenaren erretratoren bat, baina hobe Legorretara joango bazina eta han bere alabaren bati eskatu. Azaldu iezaziozu zertarako den.

- Bai -erantzun diot-. Ez dugu bere gainean okerrik esan, baina batere abisa-

tu gabe publikatzea ere... Hobe izango da joatea, gero sustorik hartu ez dezaten.

Legorretako "Bar Olaso" itxita zegoen, baina aldameneko dendariak berehala esan zidan 'Jainkoaren' alaba non bizi zen. Etxe hartan gurasoak falta, neskatila bat besterik ez. Bere izebaren etxera bidali ninduen, papertxo batean telefono-zenbakia apuntatuz, badaezpada.

Jesus Eskisabel zenaren beste alaba hori pozik jarri zen nire asmoa azaldu nionean. Ilusioa egin zion kazetari bat bere aita zanaz gogoratzeak. Handik hamar minutura kalean nintzen atzera, Legorreta 'Jainkoa' zenaren argazkia poltsikoan nuela.

Abade andoaidarra

Egun batzu geroago, Andoaingo Berrospe-n jaiotako 'Jaungoikoaren' berri izan nuen, beste kazetari batek, Mikel Atxagak esanda. Jose Antonio Loinaz zuen izena eta Asteasu eta Soraluzen egon zen apaiz. Asteasur edadekoek gogoan dute nola Errepublikara irteerak haxe esaten zuen, berrikeretan: "Ni, uniforme hau izan ez balitz -sotana seinatuz-, komunista!". Gudarien ondoren egin zuen gerra, kapellau, eta handik herbestera bidali zuten, Ciudad Real-go Almanedijos-a hain zuzen. 1946an Soraluzen hasi zen eta hil ere hantxe hil zen, 1970ean.

24 urte egin zituen, beraz, Soraluzen. Oso zen bertsozalea eta ongi moldatzen zen herriko gazte nahiz helduekin. Pena galanta hartu zuen Soraluzek hura hiltzean. Herri hartan inor gutxik zekien Don Jose Antonioren familiakoei 'Jaungoikoa' esaten zitzaiela Andoainen. Plaentxiarrek beste gaitzizen bat ipini zioten gainera: 'Mantso'. Kantua ikasten ari ziren bere ikasleei "mantso, mantso" oso sarri esaten zielako.

Hil ziren haren senideak ere, baina anaia Domingoren alarguna bizi da oraindik, Andoainen. Hara joan nintzen, 'Jaungoikoa' ez-izenaren nondik norakoa jakin nahian. Ez dio, ordea, inori atea zabaltzen, baina nik horrelakorik jakin ez eta bi aldiz inguratu ate-joka. Alfer-alferrik. Telefonoz ere alferrikako lana:

- Zu al zara Domingo Loinazen alarguna?
- Bai.
- Zurekin egon nahi nuke, zure koinatuaren gainean hitzegiteko, Don Jose Antonioren gainean.
- Ez daukat holako tontokeriatarako astirik!

Joan zaizkit bide horretatik segitzeko gogo guztiak. Asteasun edo Soraluzen egongo ahal da haren erretratoren bat, esaten diot nere buruari. Soraluzeko parrokian abadeak hartzen dit telefonoa. Azaltzen diot Don Jose Antonio

— Legorretako J. Eskisabelen osaba zen 'Jainkoa', eta gero ilobari erantsi. Taberna izan zuen eta bertsolari ere izan zen. Hura hiltzean, 1974ean, pena galanta hartu zuten legorretarrek

— Jose Antonio Loinazi 'Jaungoikoa' esaten zioten. Gerra aurretik Asteasun egon zen apaiz, gero Guadalajarara bidali zuten zigortuta, eta azken urteak Soraluzen eman zituen. Herri honetan 'Mantso' zuen gaitzizena

— 'Jainko Ttipia' deitzen zioten Ustaritzeko petrikiloa duela 35 bat urte hil zen. Orain bada beste petrikilo bat Behe Nafarroako Jutsi herrian ez-izen berbera daukana. Astean bi egunetan errezibitzen du jendea

***— Zarauzko 'Egi-Gain' en bizi diren Azkueta-
rrei 'Jainkoenekoak' esaten diete orain ere. Oraingo gizonen aitona Aiako 'Jainko-Errotta'n bizi izan zelako sortu zen izengoitia***

zenaren argazkia nahi dudala eta harek berriz:

- Eta zer tipotako artikulua da ba?

- Bueno... Begira... Xelebrekeria iruditu-
tuko zaizu beharbada... Egiten ari naiz
artikulu bat kontatuz nola garai batean
Gipuzkoan jende dezente zegoen gai-
tizena, ez-izena zera zuena...

- 'Jaungoikoa'.

- Bai, hori!

- Guk ez daukagu ba artxiborik. Ando-
aina joan beharko duzu, hura hangoa
zen eta.

- Bai, ibili naiz Andoainen, baina haren
senideak hil ziren, geratzen da koinata
bat, baina ez nau errezibitu nahi.

- Ba hemen Soraluzen partikularrei es-
katu beharko diezu argazkia, edo uda-
letxean, bestela "Kontra Argi"koekin
egotea onena talde bat da hemengo
argazki zaharrak bildu dituen.

Non biltzen ote da "Kontra Argi" talde
hori, hasten naiz nere artean. Listinean
ez da Kultur Etxerik ageri. Etsi-etsian
hango argazki-denda bakarrera dei-
tzea erabakitzen dut, han jakingo dute-
la eta talde horren berri. Kasualitateak
zer izaten diren, telefonoz hizketan
hasi orduko, hariaren bestaldean zego-
enak ni ezagutu:

- Ibartutxi!

- Bai, nor zara zu?

- Berrueta.

- Ez dakit ba ezagutzen zaitudan... -ni
berriz, lotsatuta.

- Badakit zer egiteko deitzen duzun.
Hementxe eduki dut oraintxe arte herri-
ko apaiza. Badauzkagu Don Jose An-
tonioren argazki batzu eta laster bidali-
ko dizkizut. Atzera bueltatu, eh!

Ondo, ondo, portatu da Soraluzeko
abadea. Oraindik badago jendea ino-
rrengatik hamar minutu galtzeko pronto,
poza ematen du horrek.

Etumetako 'Jainkoa'

Etumetara, Errezil aldeko bailara ho-
rretara jotzeko moduan geratu nintzen.
Lehenengo datuak Azpeitko taxista ba-
ten bidez jakin nituen. Etumetako 'Jain-
koak' Andres Imaz zuen izena eta orain
hogeitaka urte hil zen, mutilzahartuta,
Azpeitiko Mixerikordian. Etumetan ze-
goela, abarkak jazten zituen eta Azpei-
tiko feriara ere holaxe jantzita jaisten
zen; Mixerikordian zegoela berriz, fel-
pazko zapatillak. Kalera ere hola irte-
ten zuen azken urteetan, tirriki-tarraka
bere zapatilla horiekin.

Zegatik esaten ote zioten 'Jainkoa' gi-
zon honi? Berarekin batera sortu zen
gaitzizena. Hala deitzen zioten doai na-
barmen bat bazeukalako: memoria. Eta
aditzen zuen guztia kontatu egiten zuen
gero atzera, berak ikusi balu bezala eta

bere kosetxako detaile berriak gaineratuz. Bere burua oso jakintsutzat zeukan, bestetik. Halaxe sortu zen ez-izena.

Behin tabernaren batean sartzean, hauxe gertatu omen zuen:

- Egunon, Jainkoak dizuela - Andresek.

Eta han zegoen batek:

- Etorri al haiz?

- Bai, etorri gaitik orain ere lau gizon: Andres, 'Muno Zaharra', 'Diputaua' eta 'Jainkoa'.

Muno baserrian jaioa bait zen. Eta 'Diputaua' ere esaten zioten.

Benta zaharra zen 'Jainkoa' bizi zen etxea. Orain ere ematen dute zerbait, sartu ezker. Duela mende erdi bat erromeria famatuak egiten ziren Etumetan eta etxe huraxe izaten zen dantzarik egin beharrean kontutan jardun nahi zutenen biltokia. 'Jainkoa' tartean zela izangu zuten zer aditua.

Haren alaba Azkoitian bizi da. Harek berriz, familiarekin hitzegingo duela, bizi dela oraindik Andres zenaren semea. Anaiak ez du hitzik egin nahi, ordea. Familiako beste andre batek hitzok bota dizkit:

- Ez, ez anaiak ez du hitzik egin nahi. Beti politikaren gainean aritzen zen gure Andres... Hobe uztea. Eta erretratorik ere, ez dakit ba merezi duen... Barkatuko diguzu.

Zarauzko Azkuetarrak

Azpeitiko ibilerak utzitako gusto mikatza ezin ahazturik, Zarautza jo nuen beste egun batean. Zarautzik Meagas aldera goazela, herritik irten eta handik kilometro batera edo dago "Egi-Gain"era joateko bidegurutzea. Halaxe du izena Azkuetarren baserriak, baina jende gehienak "Jainko-enea" esaten dio. Eta hango guztiei 'Jainko-eneak'. Pentsua eraman behar zaienean ere "Jainko-enea" ipintzen dute zakuetan almagazkoek.

Etxe horretako zaharrena ama da: Maria Argote, Altxolako "Arrieta" baserrikoa. Bere gizonaren aitak Martin Azkue zuen izena eta harekin sortu zen hain zuzen 'Jainkoa' izengoitia. Martin hura Aiako 'Jainko-Errotan' bizi izan zen eta. Zergatik ipini zioten holako izena errota hari? Hori inork ez daki gaurko egunean.

Azkuetarrok Aiatik etorriak dira. Etxeak su hartu zien 1957an eta harrezkero bizi dira Zarauzko "Egi-gain"en.

Oñatikoa

Beatriz Zabaleta, Euskadi Irratiko kazetariak esanda, Oñatira abiatu nintzen hurrengo batean. Iñaki Enparantzari ere 'Jaikoa' esaten diote. Bera haserretu egiten da holakoetan: "Ni ez naiz 'Jainkoa', izatekotan 'Eulia' behar

nuke izan". Iñakik berrogeita hamar urte inguru dauzka eta bere aitonari esaten zioten 'Eulia' (Eulea), linua lantzen zuelako.

'Jainkoa' berriz, Iñakiren birraitona zen, hura ere Enparantza abizenekoa. Zerbitzen aritu zen Bergaran fraile dominikoez zuten komentuan eta eguraldia igartzen oso abila omen zen. Horregatixe ipini zioten ez-izen hura.

Hirurogei urtetik gorakoek 'Eulia' esaten diote, gaztegoek berriz, 'Jainkoa'. Denborak esango du azkenean zein gaitzitzen nagusitzen den.

Oñatiko abesbatzan kantatzen du Iñakik. Mendizale ere bada, eta Aita Villasanteren monagillo ere bai, Urbiako meza ematen duenetan.

Ustaritz eta Jutsiko petrikiloak

Duela hogeita hamabost bat urte hil zen Ustaritzeko 'Jainko Ttipia'. Jean Ithurritze zuen izena eta petrikilo oso famatua izan zen. Horregatixe, osagile oso ona zelako ipini zioten izengoiti hori. Erdaldunek 'Le Bon Dieu' esaten zioten.

Inguruko herrietatik ez ezik, Landasetatik ere joaten zitzaion jendea, autobuskadak gainera. Haren etxetik gertu dagoen janaridenda bateko emakume-ari testigantza polita kendu nion: "Azal-

du zitzaion behin andere bat, erdi-hiliek, anemiak jota. Esan zion abattoir-era (mataderiara) joateko eta basokada bat odol edateko. Ongi jarri zen eta luze bizi izan zen".

Pascal berorren semeari ere erantsi zioten gaitzizena: Pascal 'Jainko Ttipia'. Eta Pascal haren biloba, Christophe Ithurritze da, hain zuzen, "Aritzak" taldeko musika-moldaketak egiten dituen.

Ustaritzekoa hil zen, baina Jutsiko 'Jainko Ttipia', hau ere petrikiloa, hor dugu lanean. Behe-Nafarroan, Donibane Garazitik Donapaleura goazela, eskuinetara, hantxe dago Jutsi. Ostegun eta larunbatetan errezibitzen du eta, besteak beste, ziatika sendatzen omen da abila. Ezin izan dut astirik hartu beronen gainean gehiago jakiteko. Inork proba egin nahi badu, hona kontsultako telefonoa: 59 37 80 34.

Badirudi beraz, zale direla Iparraldean petrikiloari 'Jainko Ttipi' esaten.

Ormaiztegi, Leitza eta beste

Ez dira bakarrak Jose Antonio Agirrek bere lehen Jaurlaritzan osatu zuenean, lehendakariorde Joseba Rezola jarri zuen. Ordiziarra. Haren aitari ere esaten zioten 'Jainkoa'. Ez dakigu zergatik.

3 EDIZIOA ERREPORTAIA

Frantzisko Iza ere 'Jainkoa' zen gaitzizenez. Itsason jaio eta Ormaiztegin bizi izan zen. Koro Garmendia, Euskadiko Ezkerrak Madrilan daukan diputatuaren birraitona. Dirudienez, oso sarri sartzen zuen "Dios" hitza bere madarikazioetan eta horregatik jarriko zioten holako izengoitia. Karrileko paso-nibel batean aritu zen lanean, horko zaindარი. Ormaiztegiko batzuk gogoan dute behin Francoren eskolta batzu azaldu ziren kotxe batean eta, trena etortzekoa zenez, nola esan zien Izak:

- ¡Aquí no pasa ni Dios!

Leitza aldera joko dugu hurrena. Patzi-ku Perurenak kantua bat oso xelebrea bildu du, hango 'Jainko' baten berri ematen diguna:

En realidad ya queremos ver 'Rey' de Sarran que gobierna bien Arriba 'Jainko', aurrera 'Trena' 'Frantses' Axerra bizkar okerra.

'Rey' hori 'Errege' zen izatez. Juan Sestau zuen izena. 'Jainko' berriz, Eugenio Mindegia, aspaldi hila, Ezkurran jaioa eta Leitzara ezkondua. 'Trena' aldiz, Manuel Lasarteren anaia bat. Eta 'Frantses', Rosario Zabala. Kantua goizuetar batek egin zuen, Tomas Urdanozek.

Eugenio Mindegia 'Jainko' hori kaskagorra eta pertsona iritzia izan behar zuen. Hortik nonbait, gaitzizena.

Goizuetan ere bazen aspaldi beste 'Jainko' bat, Albistur abizena zuena. Horri ere, bere bakarra zelako onena erantsi omen zioten ezizena.

Beste 'Jainko' batzu: Don Nikolas Puldain -Etxarrin jaio eta Leitzan bizi izandakoa- Migel Mariezkurrena -Zubieta-koa, bizi da- Juan Fermin Aldunzin -leitzarra, hil zen- eta Juan Jose Astibia leitzarra, bizi da-.